

# EUSKARAREN HISTORIA SOZIOPOLITIKORAKO: ESPAINIAKO GERRA ZIBILAK ZAURITUTAKO EUSKALTZAINDIA (1936-1954)

**Tesiaren egilea:** Antton Ugarte Muñoz

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Filosofia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Esteban Antxustegi Igartua

**Tesiaren laburpena:**

Tesia hurrengo galderei erantzuteko saioa da. Nola lortu zuen Euskaltzaindiak 1941ean berriz batzarrak egiteko baimena eskuratzea, esaterako, Eusko Ikaskuntzak izoztuta jarraitzen zuen bitartean? Frankismoak bere politika linguistikoa zuritzeko erabili zuen tresna izan zen? Edo barne-erbestean erresistentzia kulturean aritu zen akademia? Edo garaiko baldintza gogorrek nekez jasan zituen goi-kulturako erakundeak?

Artxibo-dokumentazioan oinarrituta (Euskaltzaindia, Koldo Mitxelena Kulturunea, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Sabino Arana Fundazioa, Sancho el Sabio Fundazioa, etc.), Euskaltzaindiaren gerra zibil ondoko eta lehen frankismoko historia kulturala oinarri enpiriko sendoarekin aztertzen da tesian.

Euskaltzaindiaz eta euskaltzainez (R. M. Azkue, J. Urkixo, A. Irigarai, F. Krutwig, L. Villasante edota K. Mitxelena) gain, beste hainbat erakunderen historia ere lantzen da, gerraondoko kulturaren ikuspegi orekatua eskaintzeko asmoarekin: Real Academia Española, Bizkaiko Kultura Batzordea, EAJ eta erbestea, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegia, Bilboko Ateneo Berria, Kantabria Frantziskotar Probintzia, etc.

Iraganak ez luke izan behar gure autoirudia apaintzeko nahierara erabiltzen den biltegia. Konpartimentazio politiko-linguistikoko antzu batean sartuta gaude nire ustez, batez ere euskaraz lantzen diren ikerketetan, ikuspegi erresistentzialista behin eta berriz lantzen delako, barne-konsumorako bezala.

1936ko kolapsoaren ondoren, 1941eko apirilean Bilboko egoitzan egin zen batzarra birfundazio bat izan zen, euskaltzain asko ordeztu eta Euskaltzaindiaren egitura organikoa aldatu egin zutelako. Hasierako izendapenak politikoki oso markatuak izan ziren, ideologia eskuindarreko kideak nagusitu zirelako. Euskaltzaindia bere kideak gutxieneko normaltasunez hautatzeko aukerarik gabe geratu zen. Euskaltzaleak izanagatik, lehendabizi frankismoaren galbahe geo-ideologikoa igaro behar zuten.

Batez ere K. Mitxelenaren bidez, abertzaletasuna (Errepublika iritsi zenerako euskarazko kulturaren motor nagusi bilakatua) berriz sartu zen Euskaltzaindian, isilpean, 1950eko hamarkadan. Baina, nominalki, tradizionalismo politikoki onargarriak (I. M. Etxaide, N. Oleaga) osatu zuen Euskaltzaindiaren zuzendaritza, 1960ko hamarkadara arte. Dena dela, K. Mitxelenak oso argi bereizi zituen euskarari nahiz Euskaltzaindiari zegozkion bi alderdiak: ikerketa linguistikoa eta babes soziala.

Euskaltzaindia garai horretan ez zen izan barne-erresistentzian aritu zen elkarte heroikoa, ezta diktaduraren propagandarako tresna otzana ere, baizik eta muga estuen barruan gutxieneko jarduera prekario baina duinari eutsi zion giza instituzio inperfektua. Besteak beste, zentsura-aparatuaren kontra, baina euskal jatorriko frankisten laguntzarekin, *Eusker*a agerkari ofiziala berriz argitara eman eta estatutuak berritu zituzten. Ondorioz, diktadura frankistaren urte beltzetan hipoteka politiko astunaren zama leporatu orde, Euskaltzaindia kapital sinbolikoa metatzen joan zen. Euskal Herri osoa besarkatzen zuen erakunde bakar gisa, 1960ko hamarkadan Espainiako baldintza soziopolitikoak aldatu zirenean, urrats erabakigarriak emateko erabili ahal izan zuen kapitala.